BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

OÑATIKO UDALERRIKO TOKIKO KLIMA- ETA ENERGIA-PLANA IDAZTEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO OINARRI TEKNIKOEN AGIRIA

1 TESTUINGURUA 1

1.1 HELBURUAK 1

2 XEDEA ETA IRISMENA 2

2.1 XEDEA 2

2.2 IRISMENA 2

3 ERAGIN-EREMUA 3

4 LANEN GARAPENA ETA GAUZATZEA 4

4.1 LANEN EKINTZA-ESPARRUAK ETA METODOLOGIA 4

4.1.1 Ekintza-esparruak 4

4.1.2 Metodologia orokorra 5

4.2 PLANGINTZA 6

4.2.1 Prestakuntza fasea 7

4.2.2 Arintze- eta egokitze-diagnostikoa 8

4.2.3 Estrategia itxuratzea 9

4.2.4 Ekintza plana 9

4.2.5 Ebaluazioa eta jarraipena 10

5 PRESTAZIOAREN NAHITAEZKO ESKAKIZUN TEKNIKO OROKORRAK 11

6 PRESTAZIOAREN NAHITAEZKO ESKAKIZUN FUNTZIONAL OROKORRAK 12

7 OÑATIKO UDALAREN EKARPENA 13

8 BETEARAZPENAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA EGITEKO MODUAK ETA AHALMENA 14

9 KONTRATATUTAKO ZERBITZUA ENTREGATZEKO FORMATUA 14

10 GAUZATZE-EPEA 16

11 KONFIDENTZIALTASUNA ETA LANAREN JABETZA 16

12 ERREFERENTZIA-DOKUMENTUAK 16

1 TESTUINGURUA

Oñatiko Udalak 2010ko abenduaren 2an bat egin zuen *Europako Alkateen Itunarekin*, eta konpromisoa hartu zuen Europako helburu energetiko eta klimatikoak lortzeko. Bide horretatik, Oñatiko Udaletxeak 2012ko azaroaren 2ko Osoko Bilkuran *Energia Jasangarrirako Ekintza-Plana (EJEP)* onartu zuen. Gerora, *Alkateak Egokitzearen Alde* ekimena abiarazi zuen (2014) Europako Batzordeak klima-aldaketara egokitzeko asmoz, baita 2015ean Alkateen Itunarekin uztartu ere: *Klima eta Energiarako Alkateen Ituna* (European Comission, 2015).

Egun hitzarmen horretako helburuak lortzeko konpromisoa sinatzeaz gain, legez (4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa; eta 1/2024 Legea, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketarena) zehaztutakoak betetzera behartuta dago. Helburu horiek egikaritzeko, estrategia bat izatea ezinbestekoa da. Horiek horrela, Oñatiko Udalak aurreko EJEP horretan klima integratzeko beharra ikusten du; alegia, *Tokiko Klima eta Energia Plana (TKEP)* idazteko beharra dago.

1.1 HELBURUAK

Klimaren eta Energiaren aldeko Alkateen Itunaren baitan, eta legeek zehazten dituztenak betetze aldera, Oñatiko Udaletxeak honako helburu hauek ditu, beste askoren artean:

- Lurraldearen klima-aldaketarekiko erresilientzia handitzea, arintze- eta egokitzapen-neurria hartuta, baita pobrezia energetikoari aurre egitea ere.
- Indarrean dauden klimarekin eta jasangarritasun energetikoarekin lotutako legeen (4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa eta 1/2024 Legea, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketarena) helburu eta betebeharrak lortzeko beharrezko ekintzak barnebiltzea, eta etorkizuneko arauetara moldatzeko malgutasuna ematea.
- Helburu zehatzak lortzeko jarduerak formulatzea eta lehenestea:
    - BEGen emisioak 2030ean %45 murriztea.
    - 2030. urtean, gutxienez, energiaren azken kontsumoaren %12 aurreztea.
    - Tokiko administrazioko energia-kontsumoa % 35 murriztea.
    - 2030erako, energia berriztagarriak azken kontsumo energetikoaren gutxienez %32a izatea.
- Ikuspegi bat eta helburu estrategiko batzuk sortzea udalerriaren barnean, klima-ekintzari eta bidezko trantsizio energetikoari dagokienez, herritarrak ere

inplikatuz, planaren helburu eta betebeharrekin egokien doitzen diren partaidetza-bideen bitartez.

Horiez gain, Euskadiren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Oñatiren helburuak bateratuak izan daitezen bilatuko da. Horretarako, ondokoekin lerrokatzea izango da gure lehentasuna:

- 2050erako klima-aldaketaren Euskadiko estrategia.
- 2050 Gipuzkoako jasangarritasun energetikoaren estrategia.
- Gipuzkoako klima aldaketaren aurkako borroka estrategia 2050.
- Beste edozein plan edo estrategia zuzenean eragin dezakeena eta aurrekoekin lerrokatzen dena edo horien helburuak handitzen edo hobetzen dituena.

2 XEDEA ETA IRISMENA

2.1 XEDEA

Agiri honen xedea da Oñatiko Udalerrirako *TKEPa* idazteko, informatzeko eta zabaltzeko zerbitzuaren kontratazioa arautuko duten ezaugarri, baldintza eta irizpide teknikoak ezartzea, baita hori lortzeko beharrezkoak diren dokumentu eta txosten guztiak ere. Plan hau Udalerriaren plangintza estrategikorako esparru gisa, klima-aldaketaren arloan tokiko ekintza egituratzera bideratuta egongo da.

2.2 IRISMENA

TKEPa izapidetzeak esan nahi du plana modu substantiboan onartzeko behar den dokumentazio guztia egin behar dela, agiri teknikoan zehar zehaztutakoa, betiere kontuan hartuta prozesutik bertatik aldaketak erator daitezkeela.

Agiri honetan aipatzen den laguntza teknikoaren parte izango da, halaber, eta horrek ez du kontratuaren prezioan inolako aldaketarik ekarriko, interesdunek edo beste administrazio edo erakunde batzuek egindako ohar, alegazio eta txostenei erantzuteko idatzi beharko diren txostenak egitea, esleipendunak egindako dokumentuak izapidetzearen ondorioz, eta txosten horien ondorioz egin beharreko aldaketak sartzea.

Kontratu honetan kontutan hartu behar dira energiaren sektorean inplikatuta dauden **udal-sektore guztiak** (uraren eta hondakinen kudeaketa, hiri-mugikortasuna, energia jasangarriaren ekoizpena, etab.), erosketa eta kontratazio publikoak, turismoa, merkatuak, hirigintza, birgaitze arkitektonikoa, parkeak eta lorategiak, eta **udalaren mendeko** beste erakunde autonomo batzuk, udal-enpresak. Horrez gain, **udal-eragin zuzenetik kanpo daudenak** ere aintzat hartu beharko dira.

TKEPak gutxieneko ildo estrategiko batzuk jorratu beharko ditu (ikus *1. Taula*) eta bidean beharrezkotzat jotzen diren beste edozein ere. Betiere, planaren inplementazio egokia, ekintzen trazabilitatea eta osteko ebaluazioen bideragarritasuna bermatuz.

Diseinatutako ekintzen etorkizuneko jarraipena errazteko, ekintza horiek honako eskema honi jarraituko diote: ***Ildo estrategikoa - Programa - Ekintza***, tokiko ekintza-planak bezala (Udalsarea 2030ko e-mugi aplikazioarekin bateragarria izango da). Sektore eta ildo estrategikoetako bakoitzean sartu beharreko ekintzak fitxa batean zehaztuta joango dira.

Ildo bakoitzak barnebiltzen dituen ekintzak **zuzenak** eta **zeharkakoak** izango dira; alegia, Udalak jarduteko ahalmena duen sektoreetan edo eragin-eremuetan ezarri beharrekoak (zuzenak), edo Udalak zuzenean jarduteko gaitasunik ez duen baina sustapen-elementuen (hirigintza-plangintza, ordenantzak, alderdi fiskalak, alderdi ekonomikoak...) bidez susta ditzakeen sektoreetan ezarri beharrekoak (zeharkakoak).

1. Taula. *Oñatiko Udaleko TKEPak kontutan izango dituen gutxieneko ildo estrategikoak.*

GUTXIENEKO ILDO ESTRATEGIKOAK
a. Aurrezpen eta efizientzia energetikoa. Plangintza, kontrola, optimizazioa, inbertsioak, fiskalitatea, laguntzak eta pizgarriak, pobrezia energetikoa, hiri- eta landa-antolamendua...
b. Arrisku eta inpaktu klimatikoak aurreikustea. Bero-boladak, ibai-uholdeak, lehorteak, ur-hornidura...
c. Erresilientzia klimatikorako neurriak hartzea.
d. Hurbileko energia, iturri berriztagarrien bidez. Autokontsumoa indibiduala edo partekatua, komunitate energetikoak...
e. Garraio eta mugikortasun jasangarria. Plangintza, Udaleko flota, garraio publikoa, merkantziak, bizikleta- eta oinezkoen-mugikortasuna...
f. Hondakinen murrizketa eta Zero Zabor (*Zero Waste*) eredua.
g. Garapen ekonomikoa, berdea eta zirkularra.
h. Komunikazioa, sentsibilizazioa, prestakuntza eta herritarren erantzukidetasuna klima-aldaketaren aurrean.
...

3 ERAGIN-EREMUA

TKEParen eragin-eremua Oñatiko udalerri osoa izango da.

4 LANEN GARAPENA ETA GAUZATZEA

4.1 LANEN EKINTZA-ESPARRUAK ETA METODOLOGIA

4.1.1 Ekintza-esparruak

IHOBEk argitaratutako gida jarraituta (Ihobe, 2021), eta ezarritako lehentasuna errespetatuz (ikus *2. Taula*) egingo da lana. Klima eta energiari buruzko tokiko plana Udalean edo eskualde mailan egon daitezkeen plan sektorialak osatu eta horiekin lerrokatu behar da, baita etorkizunekoekin ere. Betiere, plan horiek eragina izan badezakete udalerriko kontsumo eta isurketetan, klima-aldaketara egokitzeko ahalmenean, edo pobrezia energetikoaren murrizketan.

2. Taula. *Planaren eragin eremuak eta garatu beharreko estrategiak definitzerakoan kontutan izan beharreko sektore guztiak. Pobrezia eta Kalteberatasun Energetikoa transbertsala den erronka izanda, proposatzen diren ahalik eta ildo estrategiko gehienetan barnebiltzea eskatzen da. Iturria: IHOBEK argitaratutako "Euskadiko Klima eta Energiari buruzko Tokiko Planak egiteko gida"-tik moldatuta.*

	KLIMA-ALDAKETA ARINTZEA	KLIMA-ALDAKETARA EGOKITZEA
POBREZIA ETA KALTEBERATASUN ENERGETIKOA	**1. Udal administrazio publikoa:** aurrezpen eta efizientzia energetikoa, berriztagarriak eta ibilgailuen flota. **2. Bizitegi-sektorea:** aurrezpen eta efizientzia energetikoa, berriztagarriak eta pobrezia eta kalteberatasun energetikoa. **3. Hirugarren sektorea:** aurrezpen eta efizientzia energetikoa, berriztagarriak eta ekonomia berdea eta zirkularra. **4. Mugikortasuna eta garraioa:** egoiliarren eta udalerriko jarduera ekonomikoaren mugikortasuna. **5. Hondakinak:** hiri-hondakinen kudeaketa. **6. Bigarren sektorea:** aurrezpen eta efizientzia energetikoa eta berriztagarriak. **7. Ura:** ur-hornidura eta -saneamendua **8. Lehen sektorea:** baso-kudeaketa, nekazaritza eta abeltzaintzako praktikak eta hurbiltasuneko kontsumoa.	▪ **Natura-ingurunea:** baliabide hidrikoak, lehorreko ekosistemak, eta lurzorua. ▪ **Hiri-ingurunea eta azpiegiturak:** azpiegitura kritikoak, azpiegitura linealak, lurraldearen plangintza eta hiri-antolamendua, hiri-ingurunea eta eraikinak. ▪ **Jarduerak:** lehen sektorea (nekazaritza, basogintza, abeltzaintza, arrantza…), industria, turismoa, finantzak eta aseguruak ▪ **Osasuna eta babes zibila:** osasuna, babes zibila eta larrialdiak. ▪ **Beste batzuk:** kontuan hartzen ez diren beste sektore batzuk edo zeharkako ekintzak.

4.1.2 Metodologia orokorra

Plana egiteko metodologia Eusko Jaurlaritzak 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoaren legea betetzeari buruz ezartzen dituen jarraibide metodologikoetara egokituko da eta 1/2024 Legea, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketarena beteko du, bai eta Klima eta Energiarako Alkateen Itunaren esparruan ezarritako funtsezko eskakizunetara doitu ere.

Honako alderdi metodologiko hauek hartuko dira kontuan:

- Oñatiko Udalak 2023tik **badu** kontabilitate eta kudeaketa energetikorako eta hidrikorako tresna bat.
- Oñatiko Udalak Udalsarea 2030ra atxikita egoteagatik Euskadin sortutako baliabide metodologikoen aplikazioetara sarbidea du.

Dokumentu honetan zehaztu ez den edozein alderdi, ager daitekeen edozein zalantza edo jarraibidearen informazio falta *Klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko Udal eta Eskualde Planak egiteko Gida*n (Ihobe, 2021) ezarritakoarekin argituko da.

Gainera, TKEPa honako erreferentzia hauen arabera ere egingo da, baita prozesuan zehar egokitzat erdietsi eta onartu diren, eta agiri honetan azaltzen ez diren, beste edozein dokumenturen arabera ere:

- *Energia Jasangarrirako Ekintza Plan bat garatzeko gida* (Europako Batzordea, 2010), edo bertsio eguneratu bat, hala badagokio.
- *'Irtenbide Naturalak' Euskal Autonomia Erkidegoko toki-esparruan klima-aldaketara egokitzeko* (Ihobe, 2017).
- 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa eta hari buruzko iruzkinak.
- *EAEko udalerriek klima-aldaketaren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa* (Ihobe, 2019)), edo bertsio/argitarapen eguneratu bat, hala badagokio.
- *Gida teknikoa*: *Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen erregelamendu-garapen finkatua eta horri buruzko iruzkinak* (Eusko Jaurlaritza, 2020), edo bertsio eguneratu bat, hala badagokio.
- 254/2020 Dekretua, azaroaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko jasangarritasun energetikoari buruzkoa

- 7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzkoa.
- 1/2024 Legea, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketarena, eta hari buruzko iruzkinak.
- *Naturan Oinarritutako Konponbideak Euskadin. 20 arrakasta-kasu klima aldaketara egokitzeko NOK erabilita* (Ihobe, 2024), edo bertsio/argitarapen eguneratu bat, hala badagokio.

Halaber, enpresa esleipendunak kontuan hartuko ditu Klima Aldaketaren Nazioarteko Panelak (IPCC, *Intergovernmental Panel on Climate Change*) 2006an Berotegi-Efektuko Gasen (BEG) inbentario nazionaletarako edo gerora egindako beste edozein aldaketa edo eguneraketetarako emandako jarraibideak.

4.2 PLANGINTZA

TKEP egiteko ibilbidean bost urrats nabarmenduko dira, non pausu guztietan egongo den bermatuta barneko koordinazioa eta herritarren parte-hartzea (ikus *3. Taula*). Plangintza hau moldagarria da, baldin eta ondo motibatuta eta justifikatuta badaude egin beharreko aldaketak.

3. Taula. *TKEP egiteko burutu beharreko gutxieneko pauso guztiak. Iturria: IHOBEK argitaratutako "Euskadiko Klima eta Energiari buruzko Tokiko Planak egiteko gida"-tik moldatuta.*

1. PRESTAKUNTZA FASEA	Abiapuntua definitzea
	Informazio-iturriak identifikatzea eta dokumentazioa biltzea
	Barneko batzorde edo lantalde bat eratzea
	Barne- eta kanpo-komunikaziorako plan bat diseinatzea
	Herritarren parte-hartzeari prestatze-fasean lotutako zereginak
2. DIAGNOSTIKOA	Udalerria testuinguruan jartzea, klima-aldaketaren alorrean
	Informazioa biltzea eta aztertzea
	Arintzeari buruzko diagnostikoa
	Udalerriko sektoreen balantze energetikoa eta BEG inbentarioa
	Udalaren balantze-energetikoa eta BEG inbentarioa edota karbono-aztarna
	Udal instalazioen azterketa energetikoa
	Egokitzeari buruzko diagnostikoa
	Joera historikoen eta klima-proiekzioen azterketa
	Klima-aldaketaren aurreko kalteberatasun eta arriskuaren ebaluazioa
	Herritarren parte-hartzeari diagnostikoaren fasean lotutako zereginak
	Ikuspegia formulatzea
	Helmugak formulatzea

3. ESTRATEGIA	*Herritarren parte-hartzeari formulazio estrategikoaren fasean lotutako zereginak*
4. EKINTZA-PLANA	Ekintza-planaren eskema egitea
	Ekintzak karakterizatzea
	Planaren inpaktu globala kalkulatzea
	Herritarren parte-hartzeari ekintza-planaren formulazio fasean lotutako zereginak
5. EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA	Planaren gauzatze maila ebaluatzeako irizpideak ezarri
	Emaitzen jarraipenerako adierazleen kalkulua ezarri
	Udalerriko BEG inbentarioa kalkulatzeko metodologia ezarri
	Udalaren karbono-aztarna kalkulatzea metodologia ezarri
	Emaitzak komunikatzea eta kontuak ematea nola egin zehaztu
	Aurrerapen eta emaitzez informatzearen prozedura ezarri
	Herritarren parte-hartzeari ebaluazio eta jarraipen fasean lotutako zereginak

4.2.1 Prestakuntza fasea

Abiapuntua ondo zehazteko eta etorkizuneko lanak eraginkorrak izateko lantalde bat egituratuko da. Ondoren, klima-aldaketarekin, energia-aurrezpenarekin, ingurumenarekin eta abarrekin zerikusia duten azterlan edo dokumentu guztiak bilduko eta aztertuko dira, abiapuntuko informazioa izateko eta aurretik egindako ahaleginak aprobetxatzeko. Gainera, egingo diren entrega guztiak zehaztu eta horien epea adostuko da.

Era berean, oinarri-urtea ezarriko da eta jarduera-datuak sektoreka. Oinarri-urtearen (Oñatiko EJEPerako 2007a ezarri zen) ezarpenari buruzko informazioa jasoko da, baita ezarritako oinarri-urterako eta TKEPa egiteko gertueneko datarako sektore ezberdinetako jarduera-datuak ere; betiere, eskura dauden datuen arabera. Energiaren kasuan, zehaztuko dira zein diren energia kontsumitzen duten sektoreak, honako hauek xehetuz: energia elektrikoaren eta erregaien kontsumoa eta berriztagarriek sektore bakoitzari egiten dioten ekarpena. Hondakinen kasuan, sortutako hondakinak zehaztuko dira, eta baita haiei aplikatuko zaien tratamendua ere. Uraren kasuan, baliabide honetarako dagoen kontsumoa zehaztuko da.

4.2.1.1 Metodologia espezifikoa

Jarduera-datuen jarraipena egiteko TKEParen aplikazio-aldian, haien kalkulurako erabilitako metodologia eta bihurketa-faktoreak zehaztu beharko dira.

4.2.1.2 Komunikazioa eta partaidetza

Azkenik, barne- eta kanpo-komunikaziorako plan bat diseinatuko da eta herritarren fase bakoitzerako partaidetza-bidea zehaztuko da. Herritarren, eragileen, enpresen eta abarren

partaidetza ezinbestekoa da; izan ere, haiek izango dira TKEPeko ekintzen azken hartzaileak. Horrenbestez, herritarren inplikazioa eskatuko du, kontzeptualizazio- eta diseinu-fasetik abiatuta.

4.2.2 Arintze- eta egokitze-diagnostikoa

4.2.2.1 Arintze-diagnostikoa

Udalerriaren eta Udalaren balantze energetikoa egingo da: jasoko dira udal-sektoreetako kontsumo energetikoari buruzko datuak ezarritako oinarri-urterako eta TKEPa egiteko gertueneko datarako ere, betiere eskura dauden datuen arabera. Zehaztuko dira zein diren energia kontsumitzen duten sektoreak, honako hauek xehetuz: energia elektrikoaren eta erregaien kontsumoa eta berriztagarriek sektore bakoitzari egiten dioten ekarpena.

Udalerriaren eta Udalaren BEG isurien inbentarioa egingo da: Udalsarea 2030k eskaintzen duen tresna erabili ahal da, edo hobesten den besteren bat, baldin eta Udalsarea 2030ren metodologiak bermatzen dituen datu eta kalkuluak guztiak biltzeko gai bada, edota horiek hobetzeko. Metodologia horrek aukera ematen du isuriak kalkulatzeko bai udalerrian bai tokiko administrazioan sortutakoak. BEGen isuriak jasotzen ditu eta honako sektore hauetan zentratzen da: garraioak, bizitegi-sektorea, zerbitzuak, hondakinak eta lehen sektorea. Era berean, aplikazioak kontutan hartzen ez dituen datuak ere bildu eta islatuko dira. Osagarri gisa, eta modu subsidiarioan, unean-unean Udalarekin adostutako beste metodo normalizatu batzuk proposatu ahalko dira. Nolanahi ere, BEG isurien jarraipena egiteko TKEParen aplikazio-aldian, haien kalkulurako erabilitako metodologia eta bihurketa-faktoreak zehaztu beharko dira. Halaber, honako hauek aintzat hartu beharko dira:

- BEG isurien inbentario horiek modu banakatuan entregatu beharko dira Excel formatuan edo antzeko formatu ireki, inprimagarri eta ikuserrazetan, BEG isurien adierazle-diagramekin.
- Gasak igortzen dituzten sektoreak Klima eta Energiarako Alkateen Itunaren webguneak adierazitako moduan banakatuta egon behar dira, eta bertan agertzen diren sektore guztiak eta horien atalak zehatz-mehatz jaso behar dira, webgune horretako egungo txantiloi ofizialera erraz transkribatzeko moduan.

BEG isurien joera-eszenatokia kalkulatuko da: BEGen inbentarioak egin ondoren, 2030erako joera-egoera edo aurreikuspen bat egingo da, honako puntu hauen etorkizuneko proiekzioak kontuan hartuz: hazkunde ekonomikoa eta biztanleriarena, eskari elektrikoa, energia berriztagarrien ekoizpena, erregaien kontsumoa, garraioa eta hondakinak.

4.2.2.2 Egokitze-diagnostikoa

Oñatiko klimaren joera historikoak eta etorkizuneko proiekzioak. Hasierako fasean, non egokitzapenerako abiapuntua definituko den, kontuan hartuko dira egungo klima, izaten ari diren aldaketak eta etorkizunerako joerak eta aurreikuspenak. Oinarritzat 2050era begira EAErako egindako eszenatoki klimatikoak hartzen dira (gutxienez 20 urtera begira).

Oñatik klima-aldaketaren aurrean duen kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa. Oñatiko kalteberatasun eta arrisku klimatikoaren ebaluazioa, batez ere, ondoko inpaktu kateei dagokienez: bero-boladen ondoriozko inpaktua giza osasunean; ibai-uholdeen ondoriozko inpaktua hiri-inguruneetan; eta lehorte gogorragoen ondoriozko inpaktua jarduera ekonomikoetan, batik bat nekazaritzan. Azterketa horretatik abiatuta, beharrezkoak diren interpretazioak edo egokitzapenak egingo dira eta bidezkoak diren ondorioak aterako dira.

4.2.3 Estrategia itxuratzea

Behin oinarri-urterako eta TKEPa egiteko data gertuenerako isurien inbentarioa eginda, eta klimaren joera historikoak eta etorkizuneko proiekzioak aztertuta, eta 2050erako herrirako aurreikusitako klimaren eboluzioa eta kalteberatasunak eta arriskuak kontuan hartuta, TKEPean jarraitu beharreko estrategia zehaztuko da. Atal honetan **ikuspegia**, **helmugak**, helburu estrategikoak (leuntzea eta egokitzea) ezarriko dira, eta Udalaz gaindiko klima-aldaketari buruzko helburuak aintzat hartuko dira, haien araberako estrategia bat planteatzeko.

4.2.4 Ekintza plana

4.2.4.1 Ekintza-planaren eskema egitea

Lehentasunezko ildo estrategikoak definituko dira eta haietako bakoitzerako zein diren arintzeko edota egokitzeko eragin handiena duten jarduketa-sektoreak.

Udalerriaren hasierako, egungo eta etorkizuneko egoera ezagututa (energia-kontsumoaren analisian, emisioen inbentarioan, aurreikusitako bilakaera-eszenatokian, klimaren joera historikoen eta etorkizuneko proiekzioen azterketan eta kalteberatasunen eta arriskuen ebaluazioan oinarrituta), TKEParen helburuak betetzeko ezarri beharreko ekintza zehaztuko dira, estrategian adierazitako jarduketa-lehentasunak kontuan hartuta.

BEGen isuriak murrizteko eta egokitzeko politiken arteko erlazioa agerikoa eta konplexua da. Hortaz, bi ekintzon arteko sinergiak aztertu beharko dira, klima-aldaketa arintzeko eta aldaketetara egokitzeko politikak modu koherentean eta osagarrian diseinatu eta ezarri daitezen.

4.2.4.2 Ekintzak karakterizatzea

Puntu honetan jasoko dira TKEParen ekintzak, fitxetan garatuta eta ildo estrategikoaren eta sektorearen arabera ordenatuta, lehentasuna kontuan hartuta. Aldi berean, finantzazio iturriak posibleak aztertu eta aipatuko dira ekintza bakoitzerako (dirulaguntzak, elkarbanatutako gastuak...).

4.2.4.3 Planaren inpaktu globala kalkulatzea

Planaren eragin orokorraren kalkuluak kontsumoen murrizketaren, sorkuntza berriztagarriaren hazkundearen eta BEG isurien murrizketaren kalkulua jaso beharko du.

Arintzeari dagokionez, TKEPak neurrien irismen eta intentsitate nahikoa jaso beharko du, 2030erako udalerriko sektore guztien BEGen isuriak oinarri-urtearekiko % 45 murrizteko helburua lortzeko. Horrez gain, nahikoa neurri hartu beharko dira 2030erako Udalaren energia-kontsumoa % 35 murrizteko eta udal-instalazioetan sorkuntza berriztagarria lortzeko, toki-administrazioaren energia-kontsumoaren % 32ren baliokidea.

Planean sartu beharreko neurrien lehen bertsio baten eraginaren kuantifikazioa egin ondoren, kontsumoa murrizteko bolumenarekin, isurketekin eta berriztagarrien gehikuntzarekin alderatu beharko da. Planaren eragina eskatutako helburu-efektua baino txikiagoa bada, neurri kopurua eta horien intentsitatea modu iteratiboan handitzen joan beharko da, lortu arte.

4.2.5 Ebaluazioa eta jarraipena

Oñatiko TKEParen ebaluazioa eta jarraipena Udalsarea 2030en tokiko jasangarritasun-planen ebaluazio- eta jarraipen-ereduaren arabera egingo da, horrela esparru metodologiko finkatu bati heltzeko eta helburu horretarako diseinatutako tresnak erabili ahal izateko.

Enpresa esleipendunak ebaluaziorako eta jarraipenerako prestaketa-lanak baino ez ditu egingo, hau da, beharrezkoa den guztia (zereginak, kalkuluak, prozedurak, komunikazio-txantiloiak...) zehaztu eta egituratuko du, indarrean dagoen araudia betetzeko eta, ondoren, Oñatiko Udaleko talde teknikoak honako zeregin hauek modu errazean egiteko:

1. Planaren gauzatze-mailaren ebaluazioa.
2. Emaitzen jarraipena, adierazleen arabera.
3. Udalerriko BEG inbentarioa kalkulatzea.
4. Karbono-aztarnaren kalkulua.
5. Emaitzak jakinaraztea eta kontuak ematea.
6. TKEParen aurrerapenen eta emaitzen berri ematea.

5 PRESTAZIOAREN NAHITAEZKO ESKAKIZUN TEKNIKO OROKORRAK

Enpresa esleipendunak agiri teknikoan adierazten den moduan eman beharko du kontratatutako zerbitzua, eta kontratuaren xede diren jarduerak behin betiko esleipenaren ondoren hasi beharko ditu, epea edo epe partzialak bete beharko ditu, kontratatutako zerbitzuetan halakorik balego, eta Udaleko Lurralde Antolamenduko Sailean izendatutako arduradunarekin koordinatu beharko du, egoki iritzitako maiztasunarekin.

Agiri honetan araututako prestazioak, gutxienez, honako baldintza tekniko hauek bete beharko ditu, ezarritako esleipen-irizpideen bidez baloratu beharreko parametroei kalterik egin gabe:

1. Enpresa esleipendunak proiekturako kontratuaren xede diren zerbitzuak behar bezala emateko beharrezkoak diren **giza baliabide** kualifikatuak eta baliabide **materialak** izango ditu.
2. Enpresa esleipendunak dokumentu bidez **egiaztatu** beharko du **esperientzia** duela tipologia honetako proiektuak egiten, koordinatzen eta ezartzen: EJEP (Energia Jasangarrirako Ekintza Planak), Udalaren Karbonoaren Aztarnaren kalkulua, Tokiko Agenda 21 edo 2030, energia auditoriak, TKEP (Klima eta Energia Jasangarrirako Ekintza Planak). Azken 3 urteetan gutxienez 3 diagnostiko-lan eta emaitzetatik eratorritako arintze-estrategiak egin izana egiaztatu beharko ditu.
3. Betebehar horiek eragiten dituzten **kostu guztiak** bere kontu hartuko ditu enpresa esleipendunak, garraiokoak barne.
4. Eskatutako gutxieneko **lantaldea** gutxienez 3 pertsonak osatuko dute, eta honako hau izango da:
    a. Lanen zuzendari/koordinatzaile bat. Goi-mailako Ingeniaria, Ingurumen Zientzietako lizentziaduna, Biologia lizentziaduna edo baliokidea izan behar du, eta 3 urtetako esperientzia izan behar du proiektuak zuzentzen eta kudeatzen, bereziki, energiarekin, klimarekin eta Udalaren energia-kudeaketarekin lotuta.
    b. Idazketa-taldea: TKEP idazketaz eta haren komunikazioaz eta partaidetzaz arduratuko dira. Koordinatzailea ez den beste 2 teknikarik osatuko dute gutxienez. Ingeniari teknikoak edo goi-mailako ingeniariak, ingurumenarekin lotutako unibertsitateko tituludunak edo ingurumenarekin lotutako gradudunak edo baliokideak izan beharko dute.

5. Lantaldeko arduradunak, gutxienez, Europako Erreferentzia Esparruko **C1 mailako euskararen ezagutza** egiaztatzen duen ziurtagiria izan beharko du edo horren baliokide ofizialen bat.
6. **Partaidetza-prozesuak dinamizatzeko** gaitasuna: proiektuaren garapen-faseetan funtsezko eragileen parte-hartzea aurreikusten denez, beharrezkotzat jotzen da lanak egiteko ardura duen taldeak oinarrizko ezagutzak izatea taldeak dinamizatzeko zereginetan eta parte hartzeko tresnetan.
7. Enpresa esleipenduna **egunean** egongo da soldaten, Gizarte Segurantzaren, prestakuntzaren eta abarren arloko langileen **kontratuei** buruzko **legedian**. Betebehar horietako edozein betetzen ez badu, Oñatiko Udalari ahalmena emango dio kontratua suntsiarazteko eskatzeko, eta, nolanahi ere, Oñatiko Udalak ez du inolako erantzukizunik izango arlo horretan.

6 PRESTAZIOAREN NAHITAEZKO ESKAKIZUN FUNTZIONAL OROKORRAK

Errendimenduari edo eskakizun funtzionalei dagokienez, kontratu honen prestazioek honako helburu hauek lortu beharko dituzte:

1. Enpresa adjudikaziodunak kontratatutako aldian egin beharreko prestazioen eta zereginen **kronograma** zehatza eta osoa egin beharko du. Kronograma hori aldatu ahalko da, aldeen beharren arabera, haien artean aldez aurretik akordio batera helduta.
2. Enpresa adjudikaziodunak udal-zerbitzuen eta, hala badagokio, kontraten **dokumentazio** eta **informazio** guztia bilduko du, Alkateen Itunaren konpromisoak eta klimari eta energiari lotuta indarrean dauden legeak (ikus ERREFERENTZIA-DOKUMENTUAK) betetzeko ezarri beharko diren neurriak identifikatu, aztertu eta definitzeko. Era berean, enpresa adjudikaziodunak Udalekoak ez diren informazio-iturriak (Eusko Jaurlaritza, GFA, konpainia elektrikoak...) **identifikatuko** ditu eta **informazio-fluxuak estandarizatuko** ditu, TKEPa monitorizatzeko. Gainera, erabilitako informazio-iturriak dokumentatuko ditu, egindako kalkuluak etorkizunean erraztu ahal izateko. Azken batean, honako hau bete beharko du, jada deskribatutakoaz gain:
    a. Erreferentziazko **isurketen inbentarioa**.
    b. Oñatiko Udalerrian klima-aldaketa **arintzeari** eta horretara **egokitzeari** buruzko **analisia** eta **diagnostikoa,** Udalerriko sektore eta eremuei buruzko ikuspegi global batez. Tartean bero-boladak, ibai-uholdeak, lehorteak eta abar izateko arriskuak etorkizuneko eszenario desberdinetan...

c. Klima-aldaketa arintzeko eta berari egokitzeko neurrien **plangintza** eta **karakterizazio** zehatza.
d. Proposatutako ekintza bakoitzari lotutako **kostuak** eta **aurrezkiak kalkulatzea**.
e. **Formulazio estrategikoa**, lortu beharreko helburu eta helmugekin.
f. **TKEParen dokumentua eta haren laburpen exekutiboa**, Klima eta Energiarako Alkateen Itunak eskatutako zehaztapenen arabera, ekimenak garatutako gidei jarraituz, bai eta lurralde mailan garatutako balizko gidei jarraituz ere (Ihobe, 2021).
g. TKEP Europako Batzordeari entregatzeko **online formularioa betetzea**, ingelesez, www.eumayors.eu web orrian eskuragarri.
h. Barneko eta kanpoko **partaidetza-** eta **komunikazio-plana**.

3. Enpresa esleipendunak kanpoko finantzaketa bilatuko du (**dirulaguntzak, elkarlana…**), proposatutako neurriak hartzea errazteko.
4. Lizitazio honen xede diren lanak (dokumentuak idaztea, herritarrek parte hartzeko prozesua, etab.) **euskaraz** zein **gaztelaniaz** egingo dira, herritarren hizkuntza-eskubideak berma daitezen.
5. Era berean, **hizkera ez-sexista** erabiliko da kontratuaren ondoriozko dokumentazioan, publizitatean, irudietan eta gainerako materialean, eta genero-ikuspegia kontuan hartuko da kontratua gauzatzearen ondoriozko txosten idatzietan, datu-bilketan, estatistiketan eta abarretan.

7 OÑATIKO UDALAREN EKARPENA

Enpresa esleipenduna Oñatiko Udalerriko eskakizun eta beharretara doitu beharko da, eta horretarako beharrezkoak diren bide informatiboak eta komunikatiboak kontutan izango dira. Aldi berean, Oñatiko Udalak honako hauek egiteko konpromisoa hartzen du:

- Eskura dauden txostenak eta diagnostikoa egiteko behar den **informazioa eman**. Ez dira Udalaren erantzukizuna izango proposatutako ekintza bakoitzari lotutako kostuen eta aurrezkien kalkulua eta estimazioa.
- Proposatutako ekintzen **egokitasuna** onartu.
- Koordinazio eta zuzendaritzarako beharrezkoa den **atzeraelikadura** eman.
- Agiri tekniko hauetan agertzen ez den, baina prozesuan zehar Oñatiko Udaleko Lurralde Antolamenduko Sailak beharrezkotzat onartzen duen, edozein kontingentziatarako **laguntza eman**.

8 BETEARAZPENAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA EGITEKO MODUAK ETA AHALMENA

Kontratatutako zerbitzuak gainbegiratzeko eta kontrolatzeko ahalmena Oñatiko Udaleko Lurralde Antolamendu Sailak izango du, eta arduradun/koordinatzaile bat izendatuko du agiri honetan adierazitako zereginen garapen normalarekin zerikusia duten gaiak zuzenean tratatzeko. Pertsona horren zereginak ondoko hauek izango dira:

- Helburuak lortzeko jarraibideak ezartzen laguntzea.
- Kontratatutako zerbitzuaren jarraipena eta kontrola egitea.
- Kontratatutako zerbitzuaren jarraipena egiteko behar den informazio eta dokumentazio guztia eskatzea erakunde adjudikaziodunari, adostutako epeetan.

Era berean, enpresa kontratistak pertsona bat izendatu behar du kontratuaren gauzatzea kudeatzeko. Pertsona horrek agiri honen xede den prestazioaren kalitatea bermatu beharko du, eta kontratazio-organoak izendatutako solaskidearekin zuzenean tratatu beharko ditu baldintza-agiri berean adierazitako zereginen garapen normalarekin lotutako gaiak.

Pertsona horien artean zehaztuko da **biltzeko aldizkakotasuna** eta **presentzialtasuna**, kontratuaren garapenarekin lotutako edozein alderdi gainbegiratu, kontrolatu eta tratatzeko, baldintza-agiri honen arabera gauzatzen dela ziurtatzeko.

Errekerimendu tekniko bakoitzaren betetze-mailaren jarraipena eta kontrola honela ebaluatuko dira:

- Kronogramaren gauzatzearen jarraipena. Bertan zehaztutako helburu eta hitoen lorpena eta horiek epe barruan edo kanpoan egiten diren baloratuko da.
- Emaitzak lortzeko konpromisoa eta emaitzen kalitatea bermatuko da. Jarraipen-bilerak eta aurrerapen-txostenak eskatu ahalko dira.

9 KONTRATATUTAKO ZERBITZUA ENTREGATZEKO FORMATUA

Lanak egin bitartean sortutako dokumentuek Udalarekin adostutako formatua izango dute, irudi korporatiboari dagokionez. Euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egongo dira. Formatu digitalean (WORD **eta** PDF formatuan edo baliokidean) emango dira oro har kontrakorik ez bada zehazten, udal-zerbitzuek erraz aldatu, eraldatu eta erabil ditzaten, udal-informatikarekin bateragarriak diren formatuetan, nahiz eta dokumentu jakin batzuk paperean ere emango diren. Jarraian, enpresa esleipendunak entregatu beharko dituen gutxieneko dokumentuak zerrendatzen dira:

DOK 1. BEG isurien eta energiaren inbentarioak (EXCEL formatuan edo baliokidean).

DOK 2. Udaleko **komunikazio- eta partaidetza-plana**.

DOK 3. **Arintzeari** buruzko diagnostikoa.

DOK 4. **Egokitzeari** buruzko diagnostikoa.

DOK 5. Oñatiko Udalerriko **TKEP** osoa (**paperean** eta digitalean). Behin betiko TKEPk, bere **eranskinetan**, ekintzen banakako fitxak (arintzekoak eta egokitzekoak) eta beharrezko irizten den bestelako informazioa izango du: kontsumo energetikoak eta isurien inbentarioak (oinarrri-urtekoak zein azken urteetakoak), klimaren joera-eszenatokiak eta etorkizuneko proiekzioak, klimaren kalteberatasun eta arriskuen ebaluazioa, 2030rako TKEParen isurien eszenatokia... Era berean, erabilitako irizpideak, hipotesiak, kalkuluak egiteko metodoak, aurreikuspenak... zehaztuko dira bakoitzean.

DOK 6. Oñatiko Udalerriko TKEParen **laburpen exekutiboa** (**paperean** eta digitalean).

DOK 7. Sortutako **kalkulu-orriak** (EXCEL formatuan edo baliokidean). Asko baldin badira, ZIP formatuan edo baliokidean bilduko dira.

DOK 8. **Informazio fluxuen diagrama** eta azalpen idatzia, identifikatutako informazio-iturrien estandarizazioa eta egindako kalkuluak eta prozedurak etorkizunean erraztu ahal izateko. Dokumentu hau, zehatza eta osoa izango da.

DOK 9. Udaleko **komunikazio- eta partaidetza-planarekin** lotutako **dokumentuak**: kontratuaren esparruan egindako komunikazio- eta partaidetza-ekintzen zerrenda, eta ekintza horietarako prestatutako dokumentazioa (jarraipen-bileren aktak, gobernu-taldearekin egindakoak, aurkezpenak, saioen txostenak...).

Formatuei dagokienez, prozesuan zehar, goian aipatutako formaturen bat beste formaturen batean entregatzea posible izango da, baldin eta Udaleko Lurralde Antolamenduko Sailak horrela onartzen badu.

Inprimatutako edozein dokumenturen paperak honako baldintza hauek izango ditu:

- % 100 birziklatutako papera erabili (% 65, gutxienik, kontsumitu ondokoa) edo baso kudeaketa iraunkorreko edo birziklatutako zuntzen edukia gutxienik % 20koa duen paper birziklatu gabea. Paper ez-birziklatua soilik erabili ahal izango da Din A4 edo Din A3 planoetan inprimatu ezin diren planoetarako, edo merkatuan kalitate birziklatuko paperik ez duten paper-motak behar dituzten beste erabilera batzuetarako.
- Erabat klororik gabea izatea (TCF).
- Gehienez ere % 80ko zuritasun-maila izatea ISO 11475:2004 arauaren edo baliokidearen arabera.

10 GAUZATZE-EPEA

Gauzatzeko epea gehienez **bederatzi (9) hilabetekoa** izango da, kontratua sinatzen denetik zenbatuta eta kontratuak **ez** du luzapenik egiteko aukerarik izango. Prozesuaren hasiera fasean onartuko dira entregak eta horien epeak, enpresa esleipendunarekin adostuta. Epe hauek jarraituko dira, besterik adierazi ezean, eta horiek aldatzeko arrazoi nahikorik ez badago:

- **Lehenengo entrega:** kontratua hasi eta 2 hilabeteko epea energia eta BEG isurien inbentarioa eta diagnostikoa aurkezteko baita barne- eta kanpo-komunikaziorako behin betiko plana ere.
- **Bigarren entrega:** aurrekoa amaitu ostean, 4 hilabeteko epea Arintze eta Egokitzapen Diagnostiko osoak eta Formulazio Estrategikoaren zirriborroa, Planaren eskema, informazio fluxuen diagrama eta azalpen idatzia eta kalkulu orriak aurkezteko.
- **Hirugarren entrega:** 3 hilabeteko epea, aurreko entrega amaitzen denetik, Oñatiko Udalerriko TKEP osoa, laburpen exekutiboa eta falta den eta beharrezkotzat jotzen diren dokumentuak entregatzeko.

Era telematikoan ematen ez diren zerbitzuak emateko lekua Oñatiko Udala izango da. Hala ere, ondo argudiatuta balego, kokapenaren aldaketa eska daiteke eta onarpena Oñatiko Udaleko Lurralde Antolamenduko Sailaren esku egongo da.

11 KONFIDENTZIALTASUNA ETA LANAREN JABETZA

Edozein fasetan egiten diren lanak Oñatiko Udalaren jabetzakoak izango dira eta, ondorioz, Udalak edozein unetan eskatu ahal izango du egindako lanaren zatiak entregatzea, betiere behin betiko egitarauarekin bateragarria bada eta lanen garapen egokiari eragiten ez badio.

Esleipendunak ezin izango ditu kontratatutako lanen datuak beretzat erabili, ez eta hirugarrenei jakinarazi edo eman ere, ezta lanen edukia osorik edo zati batean argitaratu edo erreproduzitu ere, Oñatiko Udalaren berariazko baimenik gabe. Nolanahi ere, esleipenduna izango da betebehar hori ez betetzearen ondoriozko kalte-galeren erantzule.

12 ERREFERENTZIA-DOKUMENTUAK

4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa. https://labur.eus/MTCIz (eskuratze-data: 2025/01/10)

254/2020 Dekretua, azaroaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko jasangarritasun energetikoari buruzkoa https://labur.eus/trVQv (eskuratze-data: 2025/01/10)

7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, klima-aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzkoa https://labur.eus/KT8j6 (eskuratze-data: 2025/01/10)

1/2024 Legea, otsailaren 8koa, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketarena https://labur.eus/Lc6gH (eskuratze-data: 2025/01/10)

Europako Batzordea, 2015. *Covenant of Mayors. Commitment document*. https://labur.eus/Ys0wu (eskuratze-data: 2025/01/10)

Europako Batzordea, 2010. *Cómo desarrollar un Plan de Acción para la Energía Sostenible (PAES),* https://labur.eus/eCVA8 (eskuratze-data: 2025/01/10)

Eusko Jaurlaritza, 2020. *Gida teknikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen erregelamendu-garapen finkatua eta horri buruzko iruzkinak*. https://labur.eus/tyS96 (eskuratze-data: 2025/01/10)

Ihobe, 2017. *'Irtenbide Naturalak' Euskal Autonomia Erkidegoko toki-esparruan klima-aldaketara egokitzeko.* https://labur.eus/QZxbv (eskuratze-data: 2025/01/10)

Ihobe, 2019. *EAEko udalerriek klima-aldaketaren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa*. https://labur.eus/TpNnn (eskuratze-data: 2025/01/10)

Ihobe, 2021. *Euskadiko klima eta energiari buruzko tokiko planak. Klima-aldaketa arintzeko eta berari egokitzeko Udal eta eskualdeko planak egiteko gida.* https://labur.eus/Q5mkb (eskuratze-data: 2025/01/10)

Ihobe, 2024. *Naturan Oinarritutako Konponbideak Euskadin. 20 arrakasta-kasu klima aldaketara egokitzeko NOK erabilita*. https://labur.eus/YHqot (eskuratze-data: 2025/01/10)

GERMAN VELAYOS GAINZA - 78937998C

Firmado digitalmente por GERMAN VELAYOS GAINZA - 78937998C
Fecha: 2025.04.22 15:10:10 +02'00'